

Erf.: HAPOaren ordenantzen aldaketa hasikeraz onartzea.
Tx. zk.: 2021/81

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkari akzidental funtzinoetan, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Gaia: HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa hasikeraz onartzea.

Espediente tramitatuak: Urigintza saila.

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0131 (2021).

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1. artikulua.

Aurrekariak

Lehena.- 2021eko ekainaren 1eko udal arkitektoaren txostenaren arabera eta 2021eko ekainaren 9ko Urigintzako AOTaren txostenaren arabera, HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atala aldatzeko beharrezana dago.

Bigarrena.- 2021eko ekainaren 9tik 24ra arte kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

Hlugarrena.- 2021eko ekainaren 28an, Urigintzako AOTk txostena emon eban eta, txosten horren arabera arabera kontsulta publikoan ez da ekarpenik jaso.

Laugarrena.- 2021eko ekainaren 28an, Urigintza saileko AOTk egindako erabagi proposamenean HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa onartzeko proposamena egin dau.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E500073DDF00Z3S5T8M6N0G5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
11:16:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0131
Data: 01/06/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500073DDF00Z3S5T8M6N0G5



Oinarri juridikoak**1. Aplikagarria dan araudia**

- Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (58, 99 eta 103 artikulua).

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua).

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa**A) Oinarrizko kontzeptuak**

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dauzen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128. artikuluan aitortzen da udalek daukeen eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu daie izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, legedia errespetatu beharko dabenek beti.

Hori horrela, zuzena da HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa izapidetu eta onartzea.

Ordenantza hori aldatzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diran printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.



Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkusiok, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

2/2006 Legearen 99. Artikulua, 39/2015 Legearen 132 eta 133. artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoak izan behar da:

a) Ordenantzaren aldaketa udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132 art.).

Ez dago aurreikusita. Plangintzaren aldaketa onartu beharko da.

b) Urigintzako AOTk justifikatuko dau HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa onartzeko beharrezana eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu dirala.

Justifikatu dau.


c) Hala jagokonean, ordenantza aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi daukeen etorkizuneko arauak uki leikezan subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu honeei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diran arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki dan.
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan leikezan bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Izapide hori prozeduran burutu izan da.

d) Urigintzako AOTk HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa onartzeko erabagi proposamena egingo dau.

Erabaki proposamena egin da eta zuzena da.



e) Txosten ekonomikoa egin beharko da kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkusiak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Errenta Saileko teknikariak 2021eko ekainaren 30ean egin eban txostena, eta ez eragin ekonomikorik ez dala egongo ondorioztatu eban.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko dau.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak emon beharko dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena emon beharko dau.

h) Osoko Bilkurearen ordenantza hasikeraz aldatzea onartuko dau, gehiengo soilaz, 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 47. artikuluekatz bat.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasikerako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Hala jagokonean, ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoiei eragiten deusenean, Udalak webgunean argitaratuko dau testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emeteko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin leikezan ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke eritzia arauaren eraginez euren eskubide edo interes legitimoak ukitzen jakezan pertsonak biltzen edo ordezkatzan dabean eta euren helburuak arauaren xedearrekin zerikusi zuzena daukeen antolakunde edo alkarte legez aitortuei.

Legeak ez dinosku entzunaldi hori noiz burutu behar dan, baina praktikan egoki ikusten da entzunaldi hori informazio publikoaren faseagaz batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti be, herritarren eta alkarteen eskubideak erabat errespetatuta.

k) Osoko Bilkureak, aurkeztutako erreklamazio edo iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E500073DDF00Z3S5T8M6N0G5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
11:16:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0131

Data: 01/06/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E500073DDF00Z3S5T8M6N0G5



Hasierako onarpenean ezarri leike erreklamaziorik izan ezean aldaketa behin betikoz onartuta egongo dala baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez dirala egiaztatuz.

l) Erabagia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAOn argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araberara.

Ondorioak

Espedientea aztertu ondoren, HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa onartzeko proposamenari aldeko txosten baldintzatua egiten jako. Baldintza: erabagia hartu orduko 2021. urteko Araudi Plangintzaren aldaketa onartuta egon beharko da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2021eko uztailaren 14an

Karmele Muñoa Arrigain
Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E500073DDF00Z3S5T8M6N0G5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
11:16:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0131
Data: 01/06/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada:
Erregistro nagusia

